



2021-04-16

NON: Eskolako gimnasioan.

NOIZ: Urtarrilak 16, 12:00etatik 13:00etara

Bilerara deituak:

Ikasleak: Jantokia erabiltzen duten Lh 4-5-6 mailako ikasleak.

Jantokiko arduradunak eta hezitzaileak: Indira (Eliren ordezkoa), Aroa eta Arantzazu (Ikerren ordezkoa)

Elkarbizitza batzordeko kideak: Maite Aperribai eta Saioa Uriarte.

ASANBLADAKO GAI ORDENA

1. Gaur egungo jantokiaren egoera zein den hausnartu eta 1. asanbladan hartu genituen konpromisoen betepen maila zein den zehaztu.
2. Elkarbizitza positibo baten alde hobetu daitezkeen aspektuak adostu.

JORRATUTAKO GAIK:

1. Jantokiko funtzionamendua eta elkarbizitza hobetzen doala aipatu dute ikasleek. Momentu askotan zarata handia egoten dela aipatu da ere. Horrez gain, jantokiko sarrera beste era batera gitea aztertu da ere.

Aurreko Asanbladan hartu genituen konpromisoak erreparasatu dira, betepen maila zein den ikusteko:

-HARREMANAK:

-Danok danon artian jator egotea. Errespetua oinarrizkoa da.

Puntu honetan hezitzaile eta arduradunak aipatu dute gauzak eskatzerako orduan errespetu eta eskatzeko modua hobetu behar dela, maiz ez delako betetzen.

-FUNTZIONAMENDUA:

-Arduradunek hartzen dituzten arauak ikasle guztioi jakinaraztea.

Orokorrean bete da, hala ere Covid egoeran hartutako hainbat erabaki ez direla jakinarazi aipatu du arduradunak (une-oroko erabakiak). Ikasleek ez dute puntu honetan kexarik azaldu.

-Ondo jatea izango da, bakoitzak eskatzen duena bukatzea.

Hau horrela egin da eta guztiok ados azaldu dira, Arduradunak aipatu du Susanak adierazi duela gutxienez kantitate bat banatu behar dela janari asko botatzen baita.

-Jan beharreko gutxienekoa izango da: lehenengo platera, bigarrena eta postrea. Bigarren plateran izan ditzazkeen osagarriak (patatak, txanpinoiak...) nahi ez badituzte ez dira banatuko.



Hau horrela egin da, guztiok ados.. Ikasle batek komunikazioan "erdi" zer nahi duen esan argitu die arduradun hezitzaileei. Denok berdin jokatzeko informazio hau idatzita pasako die ikasleak.

-Bakoitzak bi ogi puxka izango ditu. Eta ongi jan badute begiraleek gehiago banatzeko aukera izango dute.

Hau horrela egin da eta guztiok ados azaldu dira.

-Ikasleen kokapenean beste aukera batzuk pentsatuko dira. Hilabetero aldatzen da kokapena eta egoera nola hobetu baloratuko da.

Puntu hau ez da bete eta ikasleek eskaera egin dute.

2. HARTU DIREN AKORDIOAK:

- Errespetuz eskatuko dira gauzak jantokian eta pazientziaz jokatuko dute, hezitzaile eta arduradunek ezin baitituzte eskaera ezberdinei une berean erantzun.
- Jantokiko sarrera burbuilako egingo da baina ez dira gelaka antolatuko; Ikasleek lerroa osatuko dute nahi bezala. Lerro eraketan gatazkak sortuz gero, gelako sarrera antolatura itzultzeko dira.
- Arduradunak ikasleen kokapena aldatuko du behin.
- Zarata gutxitzeko baxu hitz egingo dute ondoko mahaikideekin. Semaforoa erabiliko da eta semaforoa gorri dagoenean 5 minutuko isiltasuna ezarriko da.
- Ikasleek korailen neurrien informazioa prestatuko dute eta arduradunari eman (irrudiz edota idatziz).
- Asanblada ondoren eginiko ordezkari bileran, 2.txandakoek egun batzuetan jateko duten denbora falta (presazka ibili beharra) saihesteko, 1go txanda 10 minutu lehenago bukatzea proposatu dute. Proposamen hau arduradunarekin aztertuko da.

Hilabebete barru beharrezkoa balitz beste Asanblada bat egingo da hartutako akordioen jarraipena egiteko besteak beste.